



## EUSKARAZKO HEDABIDEEN DEFENTSAN

**Aiaraldea Gaur** web-gunea eta **Aiaraldea Hemen** hamabostekaria diru-laguntza gabe utzi ditu **Amurrioko Udalak** 2012. urtetik lehen aldiz. Horretarako udalak, **Aiaraldea Kooperatiba Elkarte**arekin euskara sustatzeko zuen hitzarmena "alde bakarrez eta azalpenik eman gabe" bertan behera utzi du, gaur kooperatibak berak argitara eman duenez. Hedabideko arduradunek Amurrioko alkatearekin bilera eskatu arren, udal agintariak aukera hori ukatu egin die.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak honako hau adierazi nahi du:

- 1.** Euskararen normalizazioan euskarazko hedabideak ezinbestekoak dira, eta horregatik, gure eskualdeko euskarazko hedabide bakarrak, *Aiaraldea Gaur* web-gunea eta *Aiaraldea Hemen* hamabostekaria, ezinbestekoak dira.
- 2.** Euskarazko hedabide bat baztertzea, ekonomikoki itotzen saiatzea edo euskararen normalizaziorako klabea den pieza baten aurka jotzea, euskararen eta euskaldunon aurkako eraso bat da.

Horregatik, egoera honen aurrean :

- 1.** Amurrioko Udalak hartutako erabakia gaitzesten dugu, eta eskualdeko gainerako udalek egiten duten gisan, Aiaraaldea hedabidea diruz laguntzea eskatzen diogu Amurrioko Udalari.
- 2.** Deitoratu egiten dugu Amurrioko alkateak Aiaraaldea hedabideko arduradunekin bildu nahi ez izatea, eta erabakian atzera egin eta bilera egin dadila eskatzen dugu.
- 3.** Aiaraaldea Kooperatiba Elkarteari eta bere langileei elkartasuna eta babesa adierazi nahi diegu. Aldi berean, herritarrak deitu nahi ditugu martxan jarriko den sostengu kanpainarekin bat egin dezaten.

Euskarazko hedabideen alde, euskararen normalizazioaren alde, hizkuntza eskubideen alde...

**#Euskaraktibatu**

**#EuskarazkoKomunikabideenAlde**